

ZENBAIT ORIENTABIDE UNITATE DIDAKTIKOA ERABILTZEKO

- UNITATE DIDAKTIKO HONEKIN LOTUTA DOAN “KEINUKA MUGAZ GAINDI...UN GUIÑO UN SUEÑO” FILMA, ESZENA TXIKITAN BANATUTA DAGO, BAKOITZAK GIZA BALIO BAT ADIERAZTEN DUELARIK. FILMA OSO OSORIK ETA JARRAIAN IKUS BADAITEKE ERE (ORDU BAT ETA 15 MIN.), BALIO EZBERDINAK BANAKA LAN DAITEZKE, ESZENA ZEHATZERA JOANEZ; HORRETARAKO,
- 5.ORRIALDEAN BADAGO ZERRENDA BAT ETA BERTAN, PELIKULAREN BALIO BAKOITZA ZEIN MINUTUTA AGERTZEN DEN AZALTZEN DA.
- UNITATE DIDAKTIKOAREN XEDEA, GIZA BALIOEI BURUZKO EZTABAIDA ETA HAUSNARKETA ERRAZTEA DA.
- BERE HELBURUA PEDAGOGIKOA, HEZITZAILEA ETA KULTURALA DA, BETIERE, IRAKASLERIAK PRESTATURIKO BESTE AKTIBITATE ETA MATERIALEKIN BATERA, BALIABIDE OSAGARRI GISA HARTUTA.
- PROPOSATZEN DIREN AKTIBITATE ETA ARIKETAK IKUSPUNTU OROKOR BATETIK ULERTU BEHAR DIRA, ALEGIA, IDEIAK ETA LAN ARDATZAK ZEHAZTEN JOATEKO GIDA BAT BEZALA.
- UNITATE DIDAKTIKOA GAI ETA GAITASUN EZBERDINETAN BANATUTA DAGO, BAINA IRAKASLE BAKOITZAK EBALUATU BEHARKO DU, IKASLEGOAREN EZAUGARRIAK KONTUAN HARTURIK (ADINA, HELDUTASUNA, ETAB.); HORREGATIK ARIKETA GUZTIEK EZ DUTE ADIN GUZTIETARAKO EZTA HAUR GUZTIENTZAT BALIO. BERAZ, HEMEN ILDO BATZUK PROPOSATZEN DIRA BAINA IRAKASLE BAKOITZAK AZTERTU ETA ERABAKI BEHARKO DU NOLA LANDU.